

Los Williams

Euskal Zinema Dokumentalaren Astea

Vital Fundazioa Kulturunea

A Aretoa

2024ko urriaren 21a

19:30ean



Migratzaile asko euren burua ezagutzeko ispilu baten bila bizi dira; ez dira hemengoak, baina hangoak ere ez dira. Los Williams film luze dokumental eta familiarra da, kirolari buruzkoa, Iñaki eta Nico Williamsek lehen pertsonan kontatua. Bi anai futbolari, euskaldun eta beltzek (ghanatarren ondorengoak) euren historia harrigarria erakusten digute euren bizitzako bi urte erabakigarrienen bidez. Qatarreko Munduko Txapelketan bi selekzio ezberdinekin parte hartu zutenekoa, 40 urteren ostean Athletic Clubek Errege Kopa irabazi zuenekoa, Nicok Eurokupan irabazi zuenekoa, etab. Nazioarteko bi izar, euren iraganarekin eta etorkizunarekin aurrez aurre, bizitza markatu dien gatazketan zehar: arrazakeria, nortasuna, frustrazioa, anbizioa, eta arrakasta.

Fitxa teknikoa

- **Zuzendaritza:** Raúl de la Fuente
- **Gidoia:** Amaia Remírez, Rosaura Romero, Marias Recarte
- **Ekoizlea:** KANAKI FILMS, EN CERO COMA
- **Argazkilaritza:** Raúl De la Fuente, Gorka Gómez-Andreu
- **Muntaketa:** Raúl de la Fuente, Natxo Leuza, Raúl López, Lupe Pérez, Celia Hernández

- **Musika:** Mikel Salas
- **Iraupena:** 85 m
- **Hizkuntza:** Gaztelania, euskera, ingelesa, twi. Azpigituluak erderaz.

Zuzendaria

RAÚL DE LA FUENTE

Film labur dokumental onenaren Goya irabazi zuen 2014an Minerita filmarekin. Bere lehen lan luze Nómadak TX zen. 2014an Zinemiran parte hartu zuen I am Haiti filmarekin, eta La fiebre del oro (2017) eta El infierno (2019) film laburrak Kimuak programan sartu ziren. 2018an, Un día más con vida bere animaziozko dokumentala Cannesko hautaketa ofizialaren barruan emanaldi berezi batean aurkeztu eta Donostiako Publikoaren Saria eta animaziozko film onenaren Goya eta Europako Zinemaren Saria irabazi zituen. 2022an film labur dokumental onenaren Goya beretu zuen Malditarekin.

Sarrerak

Sarrera librea edukiera bete arte.

Irudien galeria



Zabaldu